

Osakidetzak Telefono Bidezko Atentzio Sistema Automatiko berria jarri du martxan herritarrei zerbitzu gehiago eskaintzeko.

Sistema horren bidez Lehen Mailako Atentziorako hitzordua edozein orduetan eskatu ahal izango duzu (24 orduetan urteko 365 egunetan). Uribe Eskualdean apirilaren 12an jarriko dugu martxan.

ERABILTZEN DUZUN LEHENBIZIKO ALDIAN SISTEMAK IDENTIFIKATU EGINGO ZAITU HURRENGOETARAKO:

- Sistemak zure telefono zenbakia gordeko du, beraz garrantzitsua da lehenbiziko aldian deia ohiko telefonotik egitea.
- Sistemak euskaraz eta gaztelaraz atenditzen du: bien artean aukeratzeko eskatuko dizu eta aukera gordeko du hurrengo deietarako.
- Zeure burua identifikatzeko eskatuko dizu NAN edo OTI zenbakiaren bidez; komenigarria da deitzen duzunean agiri horietatik bat eskura izatea.

HITZORDUA ESKATU NAHI BADUZU:

Aukeratu ahal izango duzu AURREZ AURREKO HITZORDUA (kontsultara joan behar duzu) edo TELEFONO BIDEZKO HITZORDUA (guk deituko dizugu telefonoz). Hitzordua zure familia medikuarekin, pediatrarekin, erizainarekin edo emaginarekin izan daiteke.

SISTEMAK ONDOKO AUKERAK ERE ESKAINIKO DIZKIZU:

- ETXERAKO ABISUA EDO LARRIALDIA
- OSASUN AHOLKUA: zerbitzu berria da, telefono bidez zeure osasunari buruzko kontuen gaineko kontsulta egin ahal izango duzu. Osasunaren lan-talde batek dituzun zalantzak argituko dizkizu eta, beharrezkoa bada, esango dizu zein osasun zentrotara jo behar duzun.
- BESTE ZERBITZU BATZUK: hau aukeratuz gero sistemak zure Osasun Zentroarekin jarriko zaitu harremanetan (tramiteak, txosten edo ziurtagiriak, ospitale-txostena duten bajak eta Bezeroak Atenditzeko Eremuko profesionalak erraztuko dizkizuten hainbat kudeaketa burutzeko) edo atentzio pertsonalizatua eskatzen duten beste kontu batzuetarako.

70 URTETIK GORAKO HERRITARREK edo sistema honekin arazoak dituztenek zuzenean hitz egin ahal izango dute osasun zentroko langile batekin. Horretarako komenigarria da erabiltzailea eta telefono zenbakia identifikatzeko lehenbiziko deia egiten denean beste pertsona batek laguntzea, beharrezkoa ikusten baduzue.

TELEFONO ZENBAKIAK ondokoak dira:

944 20 30 20
902 20 30 20
Zure Osasun zentroko telefono zenbakia

Sistema honen bidez lortu nahi dugu bitarteko telematiko hauetara ohituta dauden herritarrek modu errazagoan eskatu ahal izatea hitzordua eta, era berean, administrari profesionalak denbora gehiago izatea atentzio pertsonalizatua eskatzen duten kasuak atenditzeko.

Gogorarazi nahi dizugu hitzordua Internet bidez ere eska dezakezula ondoko WEB helbidean:
www.osakidetza.euskadi.net.

Uribe Eskualdeko Zuzendaritza